

## **1. Behar gero eta ageriagokoak**

### **Iparraldean handituz doazen behar berriak**

Azken mende laurdenean bereziki, anitz aldatu da euskararen gizarte erabilera. Alabaina, eragin gero eta nabariagoa izan duten faktore batzuek biziki aldarazi dute euskararen erabilera mugatzen zuen gizarte ingurumena. Faktore horien artean, besteak beste, aipatzekoak dira : irakaskuntza elebidunaren hedapena, euskarazko kazetaritza berri baten garapena (irradi-telebistetakoa bereziki), berrikitanago Euskal Herriko kantonamenduak piskanaka estaliz eratu den hizkuntz teknikarien sarea, eta, ororen gain, euskarak irautekotz, haren erabileremua gizarte gune guzi-guzietara zabaldu beharra zela gero eta jende gehiago ohartzea, eta kontzientzia hartzea.

Euskararen gizarte ingurumen berri hori urrun da gure hizkuntzak 1970ko urteetaraino izan zuenetik : alde batetik anitzez toki handiagoa zuen euskarak orduan haren erabilereremua moldatzen zuten baserriko herri eta hiri ttipietako bizitzean, eta egokiro betetzen zituen mundu hartan hizkuntzari zegozkion gizarte eginkizun nagusiak; beste aldetik, mundu hura itzaltzera zihoalarik, edo, bederen, kulturaren aldetik funski bestelakatzera, hartan gakatua bezala zen euskara, ingurumen hartako mugak ezin gaindi zitzakeelarik.

Aldaketa horren ondorioz, gero eta argiago egin da ororen begietan euskarak azpiegitura eta tresneria motz eta eskasa zuela ordu arte ezagutu ez zituen erabilerei behar bezala erantzuteko. Ezen, segur da baxeliengoaren arteko irakaskintza elebidunak, media desberdinetan egunorozko jakingarrien eta kultura gertakarien berri emateak, edo administrazio edo merkatalgoko testuen euskaratu beharrak galdatzen diela lan horretan aritzen direnei, eta baita testu eta solas horien hartzaile direnei ere, hizkuntz corpus eta solas erabide egokiak. Edozein hizkuntzarentzat balio du horrek; euskararentzat ere berdin.

### **Beharrei partez baizik egokitzen ez zaizkien tresnak**

Gorago aipatu behar berri horietarik anitzek asevide egokia aurkitu dute, bai Euskal Erkidegoan eta Nafarroa Garaian hizkuntz normalizazioan eginikako aitzinamenduei esker –dudarik batere gabe, Iparraldean ere lagungarri gertatu baitira-, bai eta hizkuntz berriztatze horren bulkatzeko hitzunek berek egin duten indar handiari esker ere. Bestalde, 1968az geroztik Euskaltzaindiak urraska eratu duen euskara batuak ere egokitze prozesu hau biziki erraztu du.

Hala ere, ipar Euskal Herrian dagoen egoera bereziz begi edukirik, egokitzapen horiek ez dituzte alor horretako itzal guziak ezabatu. Alabaina gainerako euskal eremuari konparatuz, hiru berezitasun kontuan hartzeko dira Iparraldean:

- lehenik, tokiko euskalki estandar batzuk izatea, eremuaren parte handi batean literatura nafar-lapurterak eragin zabala izanik;
- bigarrenik, gaineratasuna duen hizkuntza eta egungo gizarteari dagozkion hizkuntz ereduen markatzaile dena, frantsesa izatea, eta ez gaztelera;
- azkenik, legeak, erakundeen ibilmoldeak, eta tokiko gizarteko egin-molde anitz ere mugaz beste partekoak ez bezalakoak izatea. Izan ere, haiei dagozkien hitzezko adierazbideetan ere agertzen dira desberdintasun horien ondorioak.

Hizkuntza tresneriaren egokitzeko tokiko berezitasunak kontuan hartzekoak diren alorretarik bat hiztegia da. Ez lekuko hitz ondarea euskara batutik kanpo gelditu delako, baina hari doazkion erabilmoduak eta erabilguneak ez direlako oraino finkatuak izan, eta segurtasunik eza nagusi baita askotan. Bestalde, segurtamen falta hori areagotu du ohiz kanpoko eremuetan lexiko horrentzat maiz eskas den eta usaiak baizik ez dakarkeen hizkuntz adostasunak. Horrek esplikatzen du zergatik EEP bezalako erakunde batek hainbeste galde errezibitzen duen, bidezki eginak, eta bizkitartean halako zailtasun gabekoak diruditenak. Hori ahulezia barnago baten seinale baizik ez da. Berriz derragun, euskarak iragan azken urteetan izan duen bilakaera ikusirik, ez da harrigarri gauzak horrela izatea. Ordu da, haatik, hizkuntz tresna egokiak eratuz, makur horiek zuzenduak izan daitezten.

## **Frantses ⇒ euskara hiztegi baten egiteko beharraz**

Aipatu gisa horretako arazoei buru egiteko eraginkor izan daitezkeen tresnetarik bat, jadanik enplegatzen direnen gaineratik, frantses ⇒ euskara erreferentzia hiztegi bat egitea litzateke. Holako hiztegi baten helburu nagusia Iparraldeko euskal hiztunen eskuetan lexiko bildegi egoki baten ematea litzateke, euskara baliagarri gerta dakien mugaz alde honetako hiztunei ere egungo gizarteko hizkuntz erabilera guzietan. Egun holako hiztegiak ez da: dauden frantses ⇒ euskara hiztegi bakarrek ez dituzte behar guziak asetzen. Ez dira lexiko bildegi osoak, hauek gutienetik eskatzen baitute testuinguru bereiztea, kolokazio maizkoenen kontuan hartzea eta corpusetako adibideen ahal bezainbestetan ematea. Bizkitartean, ez da dudarik, Iparraldeko frantses-euskaldun gizarte diglosikoan, holako tresna baten sortzea beharrezkoa dela euskara hizkuntz tresna egokia izan dadin egungo gizarte bizitzean. Euskara estandarri doazkion euskal sarrerako hiztegiak baitira orain, lehentasuna du holako hiztegi baten moldatzeak. Teknikoki ere ez da haren egiteko ezin gaituzko oztoporik.

Hedadura handiko auzo hizkuntzetan, holako lanak kontu horietaz arduratzen diren erakunde publiko eta akademikoek dituzte beren gain hartzen, baita usaiako komertzio etxe arruntek ere. Hala-hala gertatzen da mugaz haraindiko euskal eremuan ere. Honaindikoan, ordea, besterik da: euskal hiztun aktiboen kopurua 10 aldiz apalago da alde honetan. Ezin pentsatuzkoa da, gisa horretan, halako hiztegi baten eraketa lana merkatalbide arruntetarik ibilirik obratzea. Horregatik du EEPak halako hiztegi baten egitea jarri bere hizkuntza politika proiektuan, hizkuntzaren kalitateaz ari den atalean.

## **2. Proiektu bat, kanpo muga batzuk kontuan hartuz beharrei erantzuteko egina**

### **Egoeraren arabera jokabide berritzaile baten beharra**

Nahiz hiztegi gintzan baliatzen diren ohiko oinarriak dituen, hemen aurkezten den proiektuak ez du orain arte parekorik izan mugaz alde honetan.

Euskarari buruzko errepresentazioa aldatzen hasia da, eta nehor gutik dudatan eman lezake egun (hala nola eginen baitzuten zenbaitek duela mende laurden bat) beharrezkoa dela euskararentzat egungo gizarteko mundu arras hiritartuari eta gizarte bitartekariz josiari egokitzea (horrek ez baitu erran nahi, lehen bezain garrantzizkoak ez direla jendeen arteko solas egun guzietakoak).

Ingurumen zientifikoa ere aldatu da azken urteetan. Badu hogeit bat urte badela Baionan unibertsitate irakaskintza oso bat Euskal Ikasketetan, eta euskarari buruzko ikerketen egituratzea ere azkartu da. Bestalde, Euskararen Hiztegi Orokorra hor baita orain, baita euskarazko testu corpus batzuk ere, franko zabalak, anitzez hobeak dira hiztegi gintzako azpiegiturak orain (nahiz garai berrietako testuetan Iparraldeko testuen tokia hala beharrez aski murrizta den).

Horra zergatik gaur egungo hiztegi gintzak eskatzen dituen egin-moldeak kontuan izanik, dituen ezaugarriak eman zaizkion hiztegiaren proiektuari (iturri hizkuntzako sarrerak erabilera maiztasunen arabera hautatuz; jomuga hizkuntzako itzulpenak ahal bezainbatean testuetako adibideetan oinarrituz).

## **Nolako hiztegia**

### **Helburuak:**

Hiztegiak hiru helburu izanen ditu:

- Gizarte bizitzeko alderdi desberdinetan euskararen erabilpena laguntzea, hiztunei euskarazko hitz baliokide fidagarriak, metodikoki hautatuak, eta behar den guzietan testuetako erreferentziak ondoan dituztela, eskainiz;
- Iparraldeko literatura euskalki historiko zabalenen jarraikitasunean, eta egungo estandarizatze orokorra lagundurik, euskararen izaera eta nolakotasuna ahal bezainbat zainduz haren eguneratzeko bideen erraztea;
- Tokiko beharrei erantzuten dien eta denboran beti hobea eta aberatsago egiten ahalko den azpiegitura lexikografiko baten oinarrien finkatzea.

### **Hiztegia norentzat egina den.**

Hiztegia hiru erabiltzaile motaren arabera egitekoa da:

- Lehen erabiltzaile mota (proiektuari bizkar-hezurra ematen diona): euskaldun alfabetatu elebidunen arabera egina izanen da lehenik hiztegia, hauen artean hizkuntz ereduen hedatzaile direnak sartzen direlarik: argitaratzaileak, euskararen teknikariak, idazleak, irakasleak, itzultzaileak, kazetariak, ...
- Bigarren erabiltzaile mota: erran gabe doa euskara ikasten ari direnek ere baliatzen ahalko dutela hiztegia;
- Hirugarren erabiltzaile mota: azkenik, euskaldun guziek, frantsesaren ikasten ari diren Hegoaldekoek ere, probetxu ateratzen ahalko dute hiztegitik.

### **Iturri-hiztegiaren ezaugarriak (frantses sarrerak)**

- Frantses sarrerak egungo frantses orokorrari dagozkionak izanen dira, maiztasun handieneko lokuzioak, kolokazioak eta esapideak barne (sarrera horiek hiztegitza elebidunaren ofizioko jendeenganik eskuratu beharko da).

### **Euskarazko baliokideen ezaugarriak**

- baliokideetan bereiziko dira i) oren forma estandarrak, ii) nafar lapurterazkoak, iii) mendebaldekoak, halako gisaz non erabiltzaileek jakinaren gainean beren beharren arabera hautatzen ahalko baitute konbeni zaiena,
- erabideei dagozkien adibideak eskainiko dira, ahal bezainbat corpusetako testuetarik ateraiak,
- lexikografiko hutsuneak beteko dira
- euskara baturako Euskaltzaindiak emanikako gomendioei jarraikiko zaizkie.

### **Euskarria eta zabalmoldea.**

- Hiztegia EEPak eginarazten baitu, jendeek urririk baliatzen ahalko dute, elektronikoki eta zuzenean, hiztegia aitzinatu arau (beraz, proiektua nola aitzinatzen den ikusten ahalko da).